

Arabako Familiako eta
Komunitateko Arretako
Irakaskuntza Unitate
Multiprofesionala

Familiako eta
Komunitateko
Medikuntzako
Prestakuntza-
ibilbidea

2024

AURKIBIDEA

1. FAMILIA-MEDIKUAREN LANBIDE-PROFILA	2
2. GAITASUN OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK	2
OINARRIZKO GAITASUNEN ARLOA	3
NORBANAKOAREN ARRETARI LOTUTAKO GAITASUNEN ARLOA.....	3
FAMILIAREN ARRETARI LOTUTAKO GAITASUNEN ARLOA	3
KOMUNITATEAREN ARRETARI LOTUTAKO GAITASUNEN ARLOA	4
PRESTAKUNTZARI ETA IKERKUNTZARI LOTUTAKO GAITASUNEN ARLOA.....	4
FAMILIAKO ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZA: GAITASUNEN LABURPENA	5
GAITASUN OROKORRAK1 ETA HAIEI LOTUTAKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK	6
3. PRESTAKUNTZA-PROGRAMA.....	7
3.1. PROGRAMAREN GARAPENA	7
3.2. HELBURU OROKORRAK.....	7
3.3. IRAKASKUNTZA-EGITURA	8
3.3.1. Familiako eta Komunitateko Arretako Irakaskuntzako Unitate Profesionala	8
3.3.2. Eremu-ikaskuntzako zentroak.....	8
3.4. PRESTAKUNTZA-BLOKEAK ETA HELBURU OROKORRAK.....	10
1. BLOKEA: E1, lehen seihilekoan (osasun-zentroa).....	11
2. BLOKEA: E1, bigarren seihilekoan, eta E2 (arlotu medikoak eta mediko-kirurgikoak).....	11
3. BLOKEA: E2 eta E3 (osasun-zentroa).....	12
4. BLOKEA: E3 (haurren arreta, emakumeen arreta, bizitzako azken etapetako arreta, osasun mentala, landa-medikuntza).....	12
5. BLOKEA: E3, 1-3 hilabete (gaitasunak egokitzea / kanpoko errotazioak)	13
6. BLOKEA: E4 (osasun-zentroa).....	13
4. EREDUZKO PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA	14
4.1. PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK	14
4.2. ERANTZUKIZUN-MAILAK.....	14
4.3. HELBURU ESPEZIFIKOAK.....	15
4.3.1. PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK: E1	15
4.3.2. PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK: E2	17
4.3.3. PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK: E3.....	20
4.3.4. PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK: E4.....	23
5. ETENGABEKO ARRETA	26
* HAUTAZKO GUARDIAK, GEHIENEZ ERE 5 GUARDIA HILEAN	26
6. PRESTAKUNTZA OSAGARRIA.....	26
6.1. ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA.....	26
6.2. PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA.....	26
7. ARABAKO FAMILIAKO ETA KOMUNITATEKO ARRETAKO IRAKASKUNTZA UNITATE MULTIPROFESIONALEKO IKASKETA-AGERTOKI NABARMENAK.....	28

Dokumentu honek Arabako Familiako eta Komunitateko Arretako Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionaleko Familia eta Komunitate Medikuntzako espezialitateko prestakuntza-ibilbide estandarra jasotzen du. Horretarako, Espezialitatearen Programa Ofiziala (POE) hartzen du erreferentziatzat: *SCO/1198/2005 Agindua, martxoaren 3koa*.

1. FAMILIA-MEDIKUAREN LANBIDE-PROFILA

Familia-medikuarentzat pertsona osotasun bat da, familia- eta gizarte-testuinguru jakin bati lotutako alderdi fisiko, psikiko eta sozialez osatua, eta, horri esker, etengabeko arreta eman dakioket artatzen dituen pertsonen, osasuntsu dauden osasun-maila igotzeko, gaixorik daudenak sendatzeko eta gaixotasunaren ondorioak zaindu, aholkatu eta arintzeko, guztiz osatzea ezinezkoa denean.

Balio profesional hauek ditu, besteak beste:

- **Konpromisoa pertsonarekin, pertsona bere osotasunean hartuta.** Arreta globala eta luzetarakoa, testuinguru familiarrean eta sozialean.
- **Konpromiso soziala.** Modu efizientean erabiltzea bitarteko sanitarioak, osasun-zerbitzuak eskuratzeko bereizkeria saihestuta. Osasun-fluxua koordinatzea.
- **Etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa.** Ebidentzia eguneratuan oinarritutako praktika.
- **Konpromisoa, espezialitatearekin berarekin eta profesional berrien prestakuntzarekin.**
- **Etikarekiko konpromisoa.** Autonomia, intimitaterako eskubidea eta konfidentzialtasuna errespetatzea.

Familiako eta Komunitateko Medikuntzako espezialitateko prestakuntza-programak (2005) Lehen Mailako Arretaren egungo eta etorkizuneko errealitatera egokitu nahi du, biztanleria osoaren eskakizun soziosanitarioei aurre egiteko gai diren profesional trebeak eta gizatiarrak prestatzeko.

Espezialitateko Programa Ofizialak adierazten duenez, eskumenen arloei lotuta egongo da prestakuntza, eta lehentasun- eta erantzukizun-mailak ezarriko ditu, tutorearen eta egoiliarren arteko harremana ardatz zentrala izanik egoiliar-aldi osoan zehar.

2. GAITASUN OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK

Familia-medikuaren profila, alderdi didaktikoei dagokienez, 6 gaitasun-eremutan antolatzen da. Gaitasun-eremu horiek estu lotuak daude Espezialitateko Programa Ofizialean zehaztutako gaitasun-arlo espezifikoekin.

- Oinarrizko gaitasunen arloa: Komunikazioa, arrazoiketa klinikoa, kudeaketa eta bioetika.
- Norbanakoaren arretari lotutako gaitasunen arloa.
- Familiaren arretari lotutako gaitasunen arloa.
- Komunitatearen arretari lotutako gaitasunen arloa.
- Prestakuntzari eta ikerkuntzari lotutako gaitasunen arloa.

OINARRIZKO GAITASUNEN ARLOA

- **Komunikazioa:**Entzuteko gaitasuna eta enpatia garatzea, beharrezkoa dira-eta erabiltzaileekin harreman ona izateko.
- **Arrazoiketa kliniko:** Era egokian arrazoitzeko gaitasuna eskuratzea, egoera larrienak detektatu ahal izateko. Horretarako, keza zehaztugabe batetik abiatuta, orientazio diagnostiko zehatzagoa prestatuko da. Praktika klinikoko gidak eta protokoloak kudeatzea.
- **Kudeaketa:** Kontsulta modu efizientean antolatzea. Proba osagarriak, baliabide terapeutikoak eta kontsulta espezializatuak zentzuz erabiltzea. Erregistroak, informazio-sistemak eta tresna informatikoak erabiltzea, datu guztiak era konfidentzian erabiltzen direla zainduta.
- **Bioetika:** Pazientearekin izaten den harremanaren alderdi etikoak (errespetua, intimitatea, konfidentziasuna, autonomia, baimen informatua). Jarduera profesionalaren alderdi etikoak (preskripzioa, bitartekoen banaketa, ikerketa, harremanak industria farmazeutikoarekin, etab.).

NORBANAKOAREN ARRETARI LOTUTAKO GAITASUNEN ARLOA

Familia-medikua, nagusiki, norbanakoei beren bizitzan zehar modu jarraituan arreta eman behar dien mediku kliniko ona da. Kontsultan nahiz etxean eman dezake arreta; era programatuan, eskariaren arabera edo larrialdietan; arazo akutuetan eta kronikoetan, eta lana modu eraginkor eta efizientean eginda.

Osoetasunaren arreta eta luzetarako arreta familia-medikuaren lanbide-profilaren berezko bi ezaugarri dira. Egoiliarrek bere pazienteen historia klinikoak egiten ikasiko du, osasunaren eta gaixotasunaren alderdi biologikoak, psikikoak eta sozialak kontuan hartzen dituen ikuspegi batetik.

Egoiliarrek osasun-arretako banakako prozesu bakoitzari dagozkion trebetasun teknikoak eskuratuko ditu, honako hauek egiteko:

- **Plan diagnostikoa**, zeinak kontuan hartuko duen diagnostiko bereizgarri egoki bat egitea, proba osagarriak ongi interpretatzea eta, hala badagokio, beste espezialista batzuen iritziak jasotzea.
- **Plan terapeutikoa**, farmakologikoa edo ez-farmakologikoa, zeina pazientearekin landu eta negoziatuko duen.
- **Jarraipen-plana**, tratamenduarekiko atxikiduraren eta lortutako emaitzen ebaluazioarekin; egoera bakoitzean, etengabeko arreta espezifiko bermatuta.

FAMILIAREN ARRETARI LOTUTAKO GAITASUNEN ARLOA

Familia-medikuak bi mailatan aritzen den unitate gisa ulertu behar du familia bakoitza: bizitza eta osasuna garatzen diren testuinguru sozialaren parte gisa eta osasunerako bitarteko gisa.

Egoiliarrek ikasi beharko du familiarekin egiten den elkarrizketa bere praktika klinikoan sartzeko, genograma egiten eta interpretatzen eta familiaren bizi-zikloak eta bizitzako

gertaera eta etapa estresagarrien trantsizioa ezagutzen. Horretarako, ziklo eta gertaera horiek ebaluatuko ditu, eta haien ondorioen berri izan behar du.

Garrantzitsua da egoiliarrek familia-baliabideak, pertsonen eta haien familiek dituzten gizarte-laguntza eta sarea identifikatzen laguntzen duten tresnak ezagutzea, bai eta disfuntzioen eta familia-jatorriko arazo psikosozialen berri jakiten laguntzen duten tresnak ere.

KOMUNITATEAREN ARRETARI LOTUTAKO GAITASUNEN ARLOA

Osasuna hobetzeko eta desberdintasunak murrizteko, familia-medikuak esku hartu behar du osasun-sistemakoa ez den beste testuinguru fisiko eta sozialean dauden osasunaren faktore erabakigarrietan.

Egoiliarrek herritarren osasun-beharrak identifikatzeko behar beste informazio lortzen ikasiko du. Horretarako, komunitatea, oro har, arretaren subjektutzat hartuko du, osasunean desberdintasunak dituzten arrisku-taldeak identifikatuko ditu eta komunitateko osasun-arazoei aurre egiteko eta subjektu zaurgarrienak osasun-sisteman sartzeko esku-hartzeak programatu eta ezarriko ditu.

Komunitateari arreta emateko alderdiari erreparatuta, hau ikasi behar du familia-medikuak: batetik, behaketa epidemiologikoko sistemak erabiltzen, ingurumenaren alderdiak eta osasunean dituen ondorioak ezagutzeko eta kontrolatzeko; eta, bestetik, modu aktiboan lan egiten biztanleria osoaren osasuna hobetu nahi duten komunitateko erakundeekin eta gainerako instituzioekin batera.

PRESTAKUNTZARI ETA IKERKUNTZARI LOTUTAKO GAITASUNEN ARLOA

Familia-medikuak etengabe prestatzen ari den profesionala izan behar du, gaitasun profesionala aldi oro mantendu eta hobetzen duena. Horretarako, saio klinikoak, bibliografikoak, berrikuspenekoak eta abar prestatzeko eta azaltzeko behar diren trebetasunak eskuratu behar ditu, bai eta Familiako Medikuntzako gradu aurreko eta gradu ondoko prestakuntzan lan egin ere.

Egoiliarrek, bilaketa bibliografikoa egiten ikasteaz gain, datu-baseak, informazio-baliabideak eta dokumentazio medikoa ezagutuko ditu, eta ebidentzian oinarritutako informazioa lortzen ikasiko du.

Egoiliarrek aldizkari zientifikoetan argitaratzen diren ikerketen emaitzen kalitatea eta garrantzia ebaluatzen jakin behar du. Horretarako, irakurketa kritikoa egiteko ohitura eta bere laneko hipotesi eta galderei erantzuteko ikerketa-proiektu bat garatzeko oinarritzko ezagutzak eskuratu beharko ditu, epidemiologia klinikoaren eta ebidentzian oinarritutako medikuntzaren metodoak eta ezagutzak bereganatuta.

FAMILIAKO ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZA: GAITASUNEN LABURPENA

GAITASUN OROKORRAK ⁽¹⁾	LOTUTAKO GAITASUN-ARLOAK
GAITASUN-EREMUAK	
1. Jarrerak/Balioak/Profesionaltasuna	3. eta 4. arloak
2. Komunikazioa: asistentziala eta beste maila batzuetakoa	1. eta 6. arloak
3. Pazientearen zainketak eta trebetasun klinikoak	2., 5. eta 6. arloak
4. Ezagutzak	1. arlotik 8. arlora
5. Osasun-sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika	3. eta 7. arloak
6. Ikaskuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako praktika	3. eta 8. arloak
GAITASUN ESPEZIFIKOAK. Espezialitatearen Programa Ofiziala (BOE)	
<i>Oinarrizko gaitasunak (komunikazio asistentziala, arrazoiketa klinikoa, arretaren kudeaketa, bioetika); Norbanakoaren arreta Familiaren arreta Komunitatearen arreta Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza</i>	
GAITASUN-ARLOAK	
1. Komunikazio asistentziala	
2. Arrazoiketa klinikoa	
3. Arreta kudeatzea (kudeaketa klinikoa, talde-lana, lanaren kudeaketa, informazio-sistema, kalitatearen kudeaketa, erantzukizun profesional)	
4. Bioetika	
5. Norbanakoaren arretari lotutako gaitasunak	
5.1. Osasun-premiei eta -arazoei heltzea	
Arazo kardiobaskularrak	Azaleko arazoak
Arnasbideetako arazoak	Traumatismoak, istripuak eta intoxikazioak
Digestio-hodiko eta gibelesko arazoak	Giltzurrunetako eta gernu-bideetako arazoak
Arazo infektzioak	Muskuluetako eta hezurretako arazoak
Metabolismoko eta endokrinologiako arazoak	ORLko arazoak
Jarrera-arazoak eta osasun mentalekoak	Begietako arazoak
Nerbio-sistemako arazoak	Mendekotasun-arriskuko jokabideak
Arazo hematologikoak	Larrialdiak eta emergentziak
5.2. Herritar-taldeei eta arrisku-faktoreak (AF) dituzten taldeei heltzea	
Haurren arreta	Adinekoen arreta
Nerabeen arreta	Mugitu ezin den pazientearen arreta
Emakumearen arreta	Hilzorian dagoen pazientearen, zaintzailearen eta doluaren arreta
Helduen arreta	Familia- eta gizarte-arriskuko egoeren arreta
Langileen arreta	
6. Familiari dagozkion gaitasunak	
7. Komunitateari dagozkion gaitasunak	
8. Prestakuntzari, irakaskuntzari eta ikerkuntzari dagozkion gaitasunak	

1. Moran-Barrios J. Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias. Berr. Espainiako Neuropsikiatriako Elkartearen 2013; 33 (118): 115-21.

GAITASUN OROKORRAK¹ ETA HAI EI LOTUTAKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK

1. JARRERA/BALIO PROFESIONALAK (PROFESIONALITASUNA) ETA ETIKA

Zuzentasuna erakusten du, erantzukizuna onartzen du, eginkizunak betetzen ditu. Bere erabakien eta ekintzen etika eta lege-erantzukizunak bere gain hartzen ditu. Lanbideari lotutako kode deontologikoen arabera jokatzeko du. Errespetua eta interesa erakusten du paziente eta senideen aurrean. Pazienteari informazioa eman ondoren, bere iritzia kontuan hartu eta errespetatzen du. Pertsonen eta senideen inplikazioa sustatzen du erabakiak hartzeko orduan. Ez du paziente bat bera ere alboratzen, eta unean uneko premien arabera laguntza eta arreta ematen saiatzen da. Lan-ingurunean jarrera pertsonal eta pertsona arteko jarrera egokia du. Etengabeko ikasketarako jarrera du. Lanpostuan modu aktibo eta dinamikoan dago inplikaturik. Garaiz iristen da, eta lan-ordutegia betetzen du.

Lotutako gaitasun espezifikoak 4. arloa: Bioetika

2. KOMUNIKAZIOA: Komunikazio asistentziala eta beste maila batzuetakoa

Gai da pazienteekin harremana edukitzeko, enpatian, konfiantzan, ulermenean eta konfidentzialtasunean oinarrituta. Gai da kalitatezko elkarrizketa bat egiteko, pazientearekiko konexioari dagokionez, eta informazioa jasotzeko eta eskaintzeko. Familiarekiko komunikazioa: Pazientearen arazoei buruzko informazio kliniko garrantzitsua lortzeko eta sintetizatzen da. Pazientearen senideei informazioa modu egokian emateko gai da. Albiste txarrak eman behar baditu, informazioa modu egokian baliatzeko gai da. Lantaldeko kideekin eta gainerako profesionalekin modu egokian komunikatzeko gai da. Talde barruko arazo, jarduera eta erabakiekiko interesa du. Taldeko jardueretan parte hartzen du. Pertsonen zainketen jarraitutasunerako ekintzak erabiltzen ditu aurrera, asistentzia-mailekin edo eragileekin hitz eginez. Profesionalen foroetan parte hartzeko gaitasuna du.

Lotutako gaitasun espezifikoak 1. arloa: Komunikazio asistentziala. 6. arloa: Familiaren arreta

3. PAZIENTEAREN ZAINKETAK ETA GAITASUN KLINIKOAK

Kasu bakoitzerako anamnesi egokia egiteko gai da. Miaketa fisiko egokia egiteko gai da. Diagnosi-hipotesiak eta arrazoizko diagnosi diferentzialak planteatzeko gai da. Behar bezala baliatzen ditu oinarritzko miaketa osagarriak (analitika, X izpiak, EKG...): indikazioa, interpretazioa, emaitza normal bat anormalek bereiztea, patroia anormal ohikoenak identifikatzea. Bildutako informazioa modu egokian integratzen du. Trebetasuna du bere mailari dagozkion prozedura teknikoak egiteko. Arazorako egokiak diren jardun-planak proposatzeko gai da, eta plan horiek pazientearen ezaugarrietara egokitzen dira. Pazientearen eboluzioaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko gai da. Informazio sistemako oinarritzko erregistroak (Historia...) behar bezala betetzen ditu.

Lotutako gaitasun espezifikoak 2. arloa: Arrazoketa kliniko. 5. arloa: Norbanakoaren arreta. 6. arloa: Familiaren arreta

4. EZAGUTZAK

Bere mailarekin bat datozen ezagutza kliniko nahikoak eta eguneratuak ditu. Ezagutzak praktika klinikoan aplikatzen ditu. Ekintza eta erabakien oinarri diren printzipioak ulertzen ditu. Iritzi kliniko egokiak erakusten ditu.

Lotutako gaitasun espezifikoak 1. arlotik 8. arlora

5. OSASUN-SISTEMAREN TESTUINGURUAN OINARRITUTAKO PRAKTIKA (Osasun Publikoa, Osasun-sistemak, Osasunaren Sustapena eta Baliabideen Kudeatzailea):

Komunitateko osasuna babesteko eta sustatzeko duen ardura ulertzen du. Pazienteari eragiten dioten osasun-faktore erabakigarriak identifikatzen ditu. Zentroen eta osasun-sistemaren antolaketa ezagutzen ditu. Baliabideen arazoizko erabilera kontuan hartzen du: bitarteko terapeutikoak, diagnostikoak, denbora, JT etab. Praktika Klinikoko Gidaliburuak ulertu eta erabiltzen ditu, eta erabakiak hartu behar dituztenean Ebidentzia Oinarritutako Osasun Arretari lotutako printzipioak aplikatzen ditu. Erabakiak hartzerakoan, pazientearen segurtasuna kontuan hartzen du. Bere jardunean segurtasun klinikoaren eta kalitate asistentzialaren printzipioak kontuan hartzen ditu. Modu egokian kudeatzen du dokumentazio klinikoa: historia klinikoa, kodifikazioa, bilakaera-orriak, kontsultartekoa, JT, ziurtagiriak, txostenak, baimen informatua, etab. Ongi kudeatzen du kontsulta (esaterako, jardueraren antolaketa), eta gaitasuna dauka taldean lan egiteko.

Lotutako gaitasun espezifikoak 3. arloa: Arretaren kudeaketa – Kudeaketa kliniko, informazio-sistemak. 7. arloa: Komunitatearen arreta

6. IKASKUNTZAN ETA ETENGABEKO HOBETUNTZAN OINARRITUTAKO PRAKTIKA (ANALISI KRITIKOA - AUTOIKASKUNTZA)

Autoikaskuntzaz arduratzen da. Ikaskuntza interesa, erantzukizuna eta ekimena agertzen ditu. Berak zuzentzen du autoikaskuntza-prozesua. Autoprestakuntzarako baliabide egokiak darabiltza. Zalantza klinikoak dituztenean, behar bezala egiaztatutako informazio-iturriak erabiltzen ditu. Informazio zientifikoa modu kritikoan aztertzen du. Zentroak/zerbitzuak antolatutako prestakuntza-jardueretan parte hartzen du. Kalitatezko saio klinikoak aurkezten ditu, metodologia egokia baliatuta. Bere praktikaren autoebaluazioaren aldeko jarrera positiboa dauka. Bere esku-hartzeak aztertzen ditu, eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzen ditu. Bere praktika klinikoaren erregistro egokiak ditu, hura aztertzeko eta hobetzeko. Egindako akatsak onartzeko gai da, eta akatsetatik eta kritiketatik ikasteko gai da. Jarrerak aldatzeko gai da. Bere eta besteekin ikaskuntzarako eta lanbide-garapenerako esperientzietan parte hartzen du. Ikerketa-prozesuetan ekarpenak egiten ditu, galderak eginez eta ebidentziak bilatuz; ikerketa-lanean inplikatzeko du.

Lotutako gaitasun espezifikoak 3. arloa: Arretaren kudeaketa – Kalitatea – Talde lana. 8. arloa: Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza

3. PRESTAKUNTZA-PROGRAMA

3.1. PROGRAMAREN GARAPENA

IRAUPENA	ORDU KOPURUA, URTEAN
4 urte	1.641,50 ordu

3.2. HELBURU OROKORRAK

Familiako eta Komunitateko Medikuntzako programak honako hauek egiten lagunduko dizkieten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eman behar dizkie espezialistei:

- Bai norbanakoaren bai kolektiboaren osasuna-gaixotasuna prozesuari bere historia naturalean zehar aurre egitea, sustapen-, babes-, osatze- eta errehabilitazio-jarduera integratuen bitartez.
- Norbanakoari bere osotasunean begiratzea: gaixotzeko modua baldintzatzen duten alderdi psikologikoak eta sozialak eta ingurumen-alderdiak antzeman, eta horietan oinarrituta ekin.
- Norbanakoen eta komunitatearen parte-hartzea onartzea eta sustatzea.
- Bere komunitatearen osasun-egoeraren eta osasun-zerbitzuen irisgarritasunaren arduradun sentitzea, eta hori zailtzen duten arazoak ezagutzea eta gainditzea.
- Lehen mailako arretarako teknologia egokia erabiltzea eta horien gainean jardutea, baliabideak eraginkortasunez erabiliz.
- Lehen mailako arretarako teknologia egokia erabiltzea, eta erreferentzia-mailak behar bezala aplikatzea.
- Diziplina anitzeko taldean lan egitea.
- Metodo zientifikoa erabiltzea jarduera klinikoan, epidemiologikoan, irakaskuntzakoan eta ikerketakoan oinarri gisa.
- Osasun-programa integralak planifikatu, gauzatu eta ebaluatzea, herritarren beharrei erantzun egokia emateko.
- Graduatu aurreko eta ondoko medikuen eta beste profesional sanitario batzuen prestakuntzan parte hartzea, bere ezagutza propioak etengabe eguneratuta
- Ikerketa epidemiologiko, kliniko eta sozialeko programak diseinatzea eta gauzatzea.
- Medikuen eta norbanakoaren arteko harreman *personalizatu eta gizatiarra* sortzea eta mantentzea, alegia, ez dadila teknologia jakin bat aplikatzea besterik izan.
- Bere jardueraren betebeharez eta mugez jakitun izatea, osasun-sistemako gainerako profesionalekin era koordinatuan lan eginik.

3.3. IRAKASKUNTZA-EGITURA

3.3.1. Familiako eta Komunitateko Arretako Irakaskuntzako Unitate Profesionala

Arabako Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntzako Unitateak 1989. urtean hasi zuen bere ibilbidea. 2015. urtean, erizaintza espezializatuko prestakuntza ezarri zenean, Familiako eta Komunitateko Erizaintza sartu zen, eta horrela eratu zen gaur egungo Lehen Mailako Arretako Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionala.

Gaur egun, honako hauek osatzen dute unitatea:

- Ikasketaburua: María Jesús Serna Sagarminaga
- Erizaintzako Azpibatzordeko burua: Sheila Sánchez Gómez
- Osasun-teknikaria: Uxune Apalategi Gómez
- Administrazio langileak: Pilar Ocáriz Oraa
Astrid Sosa Sánchez

Unitate honen zeregina da Familiako eta Komunitateko Medikuntzako Prestakuntza Programa Ofizialak gure inguru soziosanitarioaren ezaugarri berezietara egokitzea, egoiliarren ebaluatzea eta haien gaitasunen erantzule izatea Espezialitatearen Batzorde Nazionalaren aurrean.

3.3.2. Eremu-ikaskuntzako zentroak

I. GUNEA: ARABAKO ESIa ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA (Txagorritxuko eta Santiagoko egoitzak)

Aranbizkarra I OZ	Aranbizkarra II OZ
Alde Zaharreko OZ	Habanako OZ
Lakua-Arriagako OZ	Lakuabizkarrako OZ
Olagibeleko OZ	Olarizuko OZ
Salburuako OZ	San Martingo OZ
Sansomendiko OZ	Txagorritxuko OZ
Zabalganako OZ	Zaramagako OZ
Zuia Iparraldeko LMAU	

II. GUNEA: DEBAGOIENeko ESIa DEBAGOIENeko ESKUALDE-OSPITALEA

Arrasateko OZ
Oñatiko OZ
Bergarako OZ

IRAKASKUNTZAKO KOLABORATZAILEAK:

Emergentzietako lurralde-unitatea
EAG: Etengabeko Arreta Guneak
Ospitalez Kanpoko Osasun Mentaleko Sarea
Emakumearen Arretarako Zentroak
Kanpezuko landako OZ
Legutio iparraldeko landako OZ

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala
Zaballako OZ (Espetxeak)
Udaleko Osasun Publikoko Zerbitzua
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

Arabako ESiko osasun-zentroi buruzko informazioa:

http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-gkoara03/es/contenidos/informacion/oarab_nuestros_centros/es_def/index.shtml

Debagoienako ESiko osasun-zentroi buruzko informazioa:

http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-gkoara03/es/contenidos/informacion/oarab_nuestros_centros/es_def/index.shtml

3.4. PRESTAKUNTZA-BLOKEAK ETA HELBURU OROKORRAK

Urtea	Prestakuntza-egonaldia	Iraupena	Bitartekoa	Etengabeko arreta	Blokea
E1	Lehen Mailako Arreta	5 hilabete	Osasun-zentroa	Ospitaleko 5 guardia hilean (Medikuntza eta Traumatologia)	1. BLOKEA
	Larrialdiak	Hilabete bat	Ospitalea		
	Barne-medikuntza eta espezialitate medikoak	6 hilabete	Ospitalea		2. BLOKEA
E2	Barne-medikuntza eta espezialitate mediko-kirurgikoak	10 hilabete	Ospitalea	Ospitaleko 4 guardia hilean (Medikuntza eta Traumatologia)	3. BLOKEA
	Lehen Mailako Arreta	2 hilabete	Osasun-zentroa		
E3	Osasun mentala, Ginekologia, Pediatria, Zainketa Aringarriak, Erradiologia, Dermatologia	6 hilabete	Kanpo-kontsultak	Ospitaleko 4 guardia hilean (Medikuntza, Traumatologia eta Pediatria)	4. BLOKEA
	Lehen mailako arreta (landare-mua)	Hilabete bat	Osasun-zentroa		
	Lehen mailako arreta	2 hilabete	Osasun-zentroa		
	Gaitasunak doitzea Hautazko eta kanpoko txandaketak	3 hilabete	Osasun-zentroa Bestelako baliabide batzuk	5. BLOKEA	
E4	Lehen Mailako Arreta	12 hilabete	Osasun-zentroa	Ospitaleko 3 guardia hilean LMAko guardia 1 hilean	6. BLOKEA

Irakaskuntza Unitateak egiten du txanden egutegia, programako prestakuntza-helburuak eta ospitale bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartuta. Egoiliar bakoitzarentzat era indibidualizatuan ezartzen da.

1. BLOKEA: E1, lehen seihilekoan (osasun-zentroa)

Helburu orokorrak:

- Osasun-zentroko eta eremuko antolamendua eta ezaugarriak ezagutzea.
- Osasun-zentroari atxikitako populazioaren ezaugarri soziodemografiko eta osasun-ezaugarri nagusiak ezagutzea.
- LMAko informazio-sistemaren oinarrizko erregistroak erabiltzea.
- Osasun-zentroan egiten diren jardueretan parte hartzea.
- Familiako Medikuntzan erabakiak hartzearen ezaugarri bereziak bereiztea: irisgarritasuna, gaixotasun ez-diferentziatua edo bere lehen etapetan dagoen gaixotasuna, antolamendu-falta gaixotasuna agertzen denean, luzeratako arreta, etab.
- Ziurgabetasuna erabakiak hartzeko prozesuaren berezkitzat hartzea.
- Errotazioaren bukaeran, modu arduratsuan eta bere esperientziak ahalbidetzen dion neurrian, osasun-zentroetan izaten diren arazo ohikoenez arduratzeko gai izatea (betiere bere tutoreak gainbegiratuta).

Baliabideak:

Osasun-zentroa
Guardiak ospitaleko atean

2. BLOKEA: E1, bigarren seihilekoan, eta E2 (arloan medikoak eta mediko-kirurgikoak)

Helburu orokorrak:

- Historia klinikoa egiten ikastea, kontuan harturik aurrean dituen osasun-arazoaren alderdi fisikoak, psikikoak eta sozialak.
- Txandak egiten dituen espezialitate guztietan, Lehen Mailako Arretako patologia nagusiak zuzen miatzen, diagnostikatzen eta tratatzen jakitea.
- Espezialitateetako gainerako patologiak eta Lehen Mailako Arretatik deribatzen diren eta jarraipena egiteko irizpideak ezagutzea.
- Oinarrizko prozedura diagnostikoen indikazioa eta interpretazioa ezagutzea.
- Bibliografia medikoa erabiltzen ikastea, ospitaleko prestakuntza-jardueretan (saioak, ikastaroak, etab.) entzule eta hizlari gisa parte hartzea eta ikerketa-jardueretan parte hartzea.

Baliabideak:

Ospitalea: Ospitalizazio-solairua eta kanpo-kontsultak.
Ospitalez kanpo-kontsultak.

3. BLOKEA: E2 eta E3 (osasun-zentroa)

Helburu orokorrak:

- LMAko berezko lanari berriz heltzea, ospitaleko urtebeteko errotazioen ondoren.
- Tutorearen eta egoiliarren arteko elkarriketetan errotazio-aldi horretarako adostutako ikaskuntza-jarduerak egitea.
- Mota hauetako pazienteen arretara ohitzea: pluripatologikoak, kronikoak, adinekoak, etxeakoak, etab.
- Ospitaleko bigarren errotazio-zikloan egin behar den ikaskuntza bideratzea.

Baliabideak

Osasun-zentroa
Guardiak ospitaleko atean

4. BLOKEA: E3 (haurren arreta, emakumeen arreta, bizitzako azken etapetako arreta, osasun mentala, landa-medikuntza)

Helburu orokorrak:

- Adin pediatrikoko pazienteek izan ohi dituzten gaixotasunen eta gaixotzeko moduaren ezaugarri bereizgarriak ezagutzea.
- Emakumeen arretaren, arrisku txikiko haurdunaldiaren jarraipenaren eta antisorgailuen prebentzio-jarduera espezifikoak ezagutzea.
- Emozioen eta gatazka psikologikoen mundua ezagutzea gaixotzeko baldintzatzaile gisa, baita osasun mentaleko arazoak ere.
- Landa-eremuan Lehen Mailako Arretako praktikaren berezitasunak ezagutzea.
- Zainketa aringarriak ezagutzea eta horietara ohitzea.
- Proba erradiologiko nagusien indikazioa eta interpretazioa ezagutzea.

Baliabideak:

Ospitalez kanpoko pediatria
EAZ
Ospitalez Kanpoko Osasun Mentaleko Sarea
Zainketa Aringarrien Unitatea
Ospitalea

5. BLOKEA: E3, 1-3 hilabete (gaitasunak egokitzea / kanpoko errotazioak)

Helburu orokorrak:

Hautazko errotazioak eta kanpoko errotazioak luzatu/osatzeko errotazioen barruan kokatzen dira, Irakaskuntza Unitateetako prestakuntza-programari erantsitako balio gisa. Haien edukiek eta helburuek bat etorri behar dute Espezialitateen Programa Ofizialetan ezarritakoarekin eta dagozkien profil profesionaletan definitutako gaitasunekin.

Baliabideak:

Ospitalea

Baliabide kolaboratzaileak

Irakaskuntzarako bermea daukaten ospe ezaguneko zentro nazionalak eta atzerriko zentroak

6. BLOKEA: E4 (osasun-zentroa)

Helburu orokorrak:

- Pazientean oinarritzen den metodo eta kudeaketa klinikoa ezagutzea.
- Gai izatea ikuspegi biopsikosoziala lantzeko, testuinguru familiarra eta soziala kontuan hartuta eta horri helduta, eta etxeko eta komunitateko arreta barnean hartuta.
- Komorbiditatea kudeatzen trebatzea. Paziente pluripatologikoa.
- Kronikotasunaren estrategia eta esparru soziosanitarioa ezagutzea.
- Gaixotasunak prebenitzeko eta osasuna sustatzeko jarduerak egiteko beharra eta aukera baloratzea, bai eta zainketa aringarrien beharra ere, beharrezkoa denean.
- Medikamentuak zuhurtziaz erabiltzeko trebetasunak eskuratzea: Pazientearen historia farmakoterapeutikoa kudeatzea. Medikamentuen/medikalizazioaren gehiegikeriei buruz hausnartzea. Depreskripzioa.
- Pazientearen segurtasunaren kultura praktikan sartzea.
- Partekatutako erabakien alorreko trebetasunak barneratzea, ebidentziak, onura eta arriskuen balantzea bai eta pazientearen balioak eta nahiak ere integratuz.
- Informazio-sistemako erregistroak behar bezala erabiltzea (Historia, NABG, JT, MAE...).

Baliabideak:

Osasun-zentroa

Ospitalea / kanpo-kontsultak / beste baliabide batzuk (hautazko errotazioak)

Zentro soziosanitarioak

GSIN (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala)

Espetxeko osasuna

4. EREDUZKO PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA

4.1. PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK

2022	Mes 1	Mes 2	Mes 3	Mes 4	Mes 5	Mes 6	Mes 7	Mes 8	Mes 9	Mes 10	Mes 11	Mes 12
R1	CENTRO DE SALUD					URG	M. INTERNA		NEUMO		CARDIO	
R2	NEURO		DIGESTIVO		ENDOCRINO		C. DE SALUD		PEDIATRÍA		ORL	GINE
R3	TR/RHB	RX	S.MEN	C. DE SALUD		PALIA	H. DOM	RURAL	DERMA	AJUSTE COMP/EXT		
R4	CENTRO DE SALUD											

4.2. ERANTZUKIZUN-MAILAK

EGOILIARRAREN ERANTZUKIZUN-MAILAREN ARABERAKO HELBURUAK	
3. maila	<p>Trebetasunak (T):Egoiliarra, kasu gehienetan, tutoretza zuzenik gabe egiteko gai izan behar dena. Egoiliarrak egiten du eta, ondoren, horren berri ematen du (jarduera autonomoa).</p> <p>Ezagutzak (E):Praktika autonomorako behar den ezagutza-maila.</p>
2. maila	<p>Trebetasunak (T):Egoiliarrak zuzenean egiten dituen eginkizunak, tutoreak edo ondokoak zuzenean gainbegiratuta (gainbegiratutako jarduera).</p> <p>Ezagutzak (E):Tutorearen laguntza behar du unean-unean ezagutza-hutsuneak betetzeko.</p>
1. maila	<p>Trebetasunak (T):Tutoreak edo ondokoak zuzenean egiten dituen zereginak, egoiliarra begira duela edo hark lagunduta (behaketa).</p> <p>Ezagutzak (E):Gaiari buruzko irakaskuntza jaso du.</p>

4.3. HELBURU ESPEZIFIKOAK

4.3.1. PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK: E1

OSASUN-ZENTROKO ERROTazioAREN HELBURUAK (5 hilabete)	
<p>Osasun-zentroko errotazio-aldia amaitutakoan, kontsultan arreta ematen zaien osasun-arazo edo kontsultara joateko kasurik ohikoenen arreta-prozesuan (batez ere zailtasun gutxienekoak), egoiliarak gaitasun nahikoa lortua izango du honako hauek egiteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kalitateko historia klinikoa • Oinarrizko miaketa fisiko egokia • Iritzi diagnostikoaren planteamendu eta diagnostiko diferentzial egokia • Oinarrizko miaketa osagarriak behar bezala maneiatzea: analitika, toraxeko X izpien eta EKGaren irakurketa sistematikoa, emaitza normala eta anormala bereiztea eta LMAko patroia anormal ohikoenak identifikatzea • Jarduera-plan bat proposatzea • Informazio-sistemako beste oinarrizko erregistro batzuk behar bezala betetzea (NABG, konplexutasun txikiko prozesuen JT, MAE) 	
Oinarrizko gaitasunen arloa	
2. maila	
<i>Komunikazio asistentziala.</i>	
Kalitatezko elkarrizketa klinikoa egitea, pazientearekiko konexioari eta informazioa jasotzea eta eskaintzeari dagokionez.	T
<i>Bioetika.</i>	
Gatazka etikoak antzematea eta kasua tutorearekin eztabaidatzea, inplikaturik dauden balioak hartuta erreferentzia gisa.	T
Familiari lotutako gaitasunen arloa	
2. maila	
Paziente eta senideen informazio biopsikosozial guztia erregistratzea genogramaren bitartez.	E
Komunitateari lotutako gaitasunen arloa	
2. maila	
Osasun-zentroko erreferentziarako komunitatearen egoera aztertzea: ezaugarri soziodemografikoak, osasun-determinatzaileak eta biztanleriaren gaixotasunak eta heriotzen zergatia ezagutzea.	E
Eskuragarri dauden familia-baliabideak identifikatzea.	T

BARNE-MEDIKUNTZAKO ERROTAZIOAREN HELBURUAK (2 hilabete)	
3. maila	
Historia klinikoa zuzen egitea.	T
Miaketa fisiko egokia egitea.	T
2. maila	
Sindromei heltzea: sindrome orokorra/sukarra/anemia/poliartralgiak.	T
Paziente kroniko pluripatologiko eta polimedikatuari heltzea.	T
Kasu bakoitzari dagozkion proba osagarri egokiak agindu eta interpretatzea (analisiak, ekografia, OTA, EMN, erradiologia kontrastearekin, endoskopia...).	E
Bestelako proba osagarrien indikazioak eta interpretazioa ezagutzea.	E
Sindrome garrantzitsuetan, bideratzeko irizpideak eta alta ondorengo jarraipena ezagutzea (beste baliabide soziosanitarioekin koordinatzeko beharrezana).	E

ENDOKRINOLOGIAKO ERROTAZIOAREN HELBURUAK (2 hilabete)	
3. maila	
II. motako diabetesaren zainketa (kontrolatzen zailak diren pazienteei arreta berezia emanez).	T
Ahotik hartzeko antidiabetikoak eta larruazal azpiko eta zain barneko intsulina-terapiak baliatzea.	T
Hiperlipidemien eta obesitatearen zainketa.	T
Hipotiroidismoa kudeatzea.	T
Hipertiroidismoaren diagnostikoa, hasierako orientazioa eta bideratzeko irizpideak.	T
Hezkuntza diabetologikoaren estrategiak ezagutzea.	E
Endokrinologiara deribatzen diren irizpideak ezagutzea.	E
Nutrizio enteralaren eta parenteralaren indikazioak ezagutzea.	E
Guruin suprarrenalako patologia ezagutzea.	E
2. maila	
Obesitatearen kirurgiaren indikazioak eta teknikak ezagutzea.	E

DIGESTIBOKO ERROTAZIOAREN HELBURUAK (2 hilabete)	
3. maila	
Historia digestiboa zuzen egitea.	T
Miaketa fisiko egokia egitea.	T
Oinarrizko prozedura diagnostikoen interpretazioan sakontzea: analitika espezifikoa eta X izpiak.	T
Digestibora deribatzen diren irizpideak ezagutzea.	E
2. maila	
Ohiko patologia digestiboen kudeaketa diagnostiko-terapeutikoa egitea (dispepsia, ultzera, gibel-behazunetako patologia).	T
Patologia larriak eta egoera ezegonkorrekoak ezagutzea eta baloratzea.	T
Hesteetako gaixotasun inflamatorioak kudeatzen jakitea.	E
Proba osagarriak agintzeko irizpideak ezagutzea (ekografia, OTA, erradiologia kontrastearekin, endoskopia).	E

4.3.2. PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK: E2

KARDIOLOGIAKO ERROTAZIOAREN HELBURUAK (2 hilabete)	
3. maila	
Historia kardiologikoa zuzen egitea.	T
Miaketa fisiko egokia egitea.	T
EKGaren interpretazioan sakontzea.	T
Toraxeko X izpiak zuzen interpretatzea, kardiologia-patologia ohikoenetan.	T
Kardiopatiatan, antikoagulazioari buruzko indikazioak eta arrisku/onura balantze indibidualizatua ezagutzea (tronboenbolikoa/hemorragikoa).	E
Kardiologiara deribatzen diren irizpideak	E
2. maila	
Zuzen egitea ohiko patologia kardiologikoetako diagnostiko-terapeutikoaren kudeaketa (kardiologia iskemikoa, bihotz-gutxiegitasuna, fibrilazio aurikularra) egoera egonkorrean.	T
Hurbilketa diagnostikoa egitea, eta beste kardiologia-patologia batzuk bideratzeko irizpideak ezagutzea: arritmia, balbulopatiak, miokardiopatiak, endokarditis bakterianoa, arteria handien patologia (aortako aneurisma...).	T
Kardiologiako patologia larriak eta egoera ezegonkorrekoak ezagutzea eta baloratzea.	T
Kardiologiako zauri txikiko ohiko probak (esfortzu-proba, ekokardiograma, Holterra, mahai baskulatuak) agintzea eta interpretatzea.	T
Taupada-markagailuari buruzko indikazioak ezagutzea.	E
1. maila	
Irudi-teknikek kardiologiako patologian zer aplikazio dituzten ezagutzea (OTA ebakianitza eta ENM).	E
Kirurgia birbaskularitzailearen eta balbula-aldaketaren indikazioak ezagutzea.	E

NEUMOLOGIAKO ERROTAZIOAREN HELBURUAK (2 hilabete)	
3. maila	
Historia pneumologikoa zuzen egitea.	T
Miaketa fisiko egokia egitea.	T
Behar bezala indikatzea eta interpretatzea toraxeko erradiografia, arnasketa-proba funtzionalak,	T
Inhalagailuak agintzea eta maneiatzea.	T
Pneumologiara deribatzen diren irizpideak ezagutzea.	E
2. maila	
Ondo egitea ohiko arnas patologien maneiu diagnostiko - terapeutikoa (asma bronkiala, BGBK,	T
Arnas patologia larriak eta egoera ezegonkorrekoak ezagutzea eta baloratzea.	T
TBKren diagnostikoa, terapeutika eta bilakaeraren kontrola ezagutzea.	E
Arnas-probak agintzeko eta interpretatzeko irizpideak ezagutzea (OTA, arnasbideetako alergien	E
Oxigenoterapiari buruzko argibideak ezagutzea.	E
1. maila	
Prebalentzia txikiko gaixotasunen diagnostikoa ezagutzea (sarkoidosia, biriketako fibrosia).	E

NEUROLOGIAKO ERROTAZIOAREN HELBURUAK (2 hilabete)	
3. maila	
Historia neurologikoa zuzen egitea.	T
Behar bezala osatzea oinarritzko miaketa fisiko neurologikoa.	T
Neurologiara bideratzeko irizpideak ezagutzea.	E
2. maila	
Modu egokian egitea ohiko sintomatologia eta patologia neurologikoen diagnostikoa-terapeutika (zefalea eta aurpegiko algiak, dardarak, bertigoa...).	T
Patologia neurologiko larriak eta egoera ezegonkorrekoak ezagutzea eta baloratzea.	T
Narriadura kognitiboa eta dementzia artatzea.	E
Neuroirudi-probak agintzeko eta interpretatzeko irizpideak ezagutzea (OTA, ENM).	E
1. maila	
Beste proba batzuen indikazioak ezagutzea (EEG, EMG).	E

OSASUN-ZENTROKO ERROTAZIOAREN HELBURUAK (E2 eta E3, 2 hilabete)	
Gizabanakoaren arretaren arloa	
<p><u>Konplexutasun moderatuko osasun-arazo kronikoak dituzten</u> eta kontsultan arreta jasotzen duten pazienteei arreta mediko egokia ematea, honako hauetarako trebetasunak eta ezagutzak eskuratuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kalitatezko historia klinikoa egitea. • Miaketa fisiko egokia egitea. • Kasurako egokiak diren miaketa osagarriak zuzen kudeatzea. • Pazientearen jarraipenerako planteamendua osatzea, egoerari egokitutakoa. • Jarduera-plan global egokia proposatzea. • Erabakiak hartzeko laguntza-tresna gisa, Praktika Klinikoko Gida egokiak erabiltzea. 	
Lehenetsitako patologiak/arazoak: Bihotz-hodietako arrisku-faktoreak, BGBK, asma, alterazio analitikoak, narriadura kognitiboa, kardiopatia egonkorra (bihotz-gutxiegitasuna, fibrilazio aurikularra...)	
Oinarritzko gaitasunen arloa	
3. maila	
<i>Komunikazio asistentziala</i>	
Kalitatezko elkarrizketa bat egitea, pazientearekiko konexioari eta informazioa jaso eta eskaintzeari dagokionez.	T
<i>Bioetika</i>	
Etengabe ikasteko jarrera erakustea	T

2. maila		
<i>Komunikazio asistentziala</i>		
Informazioa behar bezala erabiltzea pazientearekin eta familiarekin, albiste txarrak eman behar badira, eta isiltasuna kudeatzea.		T
Kontsulta eraginkorra egitea, hartu behar diren erabakiak pazienteekin partekatuz.		T
<i>Arrazoiketa kliniko / kudeaketa kliniko</i>		
Zalantzak argitzeko informazio-iturriak behar bezala erabiltzea.		T
Ausazko Saiakuntza Klinikoen oinarrizko oinarrizko kontzeptuak, beren ebaluazioak eta emaitzen interpretazioa ezagutzea.		T
Galdera kliniko espezifikoak egitea, kontsultan azaldutako zalantza batetik abiatuta.		T
Familiari lotutako gaitasunen arloa		
2. maila		
Paziente kronikoen edo terminalen senideek laguntza behar duten antzematea, eta laguntza eskaintzea, zaintzaileengan arreta berezia jarriz.		T
Komunitateari lotutako gaitasunen arloa		
2. maila		
Osasun-arazoei ikuspegi biopsikosoziaketik heltzea, dauden bitarteko soziosanitarioak eta komunitarioak erabiliz.		T
Prestakuntzari, irakaskuntzari eta ikerketari lotutako gaitasunen arloa		
2. maila		
Kalitatezkoak diren eta metodologia egokia duten saio klinikoak ematea (aldi horretarako aurreikusitakoak); ikerketa galderak egitea.		T

PEDIATRIAKO HELBURUAK (2 hilabete)		
3. maila		
Kasu bakoitzerako anamnesi eta miaketa egokia egitea.		T
Patologia akutuan proba osagarriak interpretatzea: Toraxeko X izpiak, gernu-analitika.		T
Umearengan maizen erabiltzen diren medikamentuen pauta posologikoak ezagutzea.		T
Bigarren mailara eta ospitalera deribatzeke irizpideak ezagutzea.		E
Txertoen egutegia jakitea.		E
2. maila		
Adin pediatrikoko arazo akutu ohikoenak kudeatzea: abdomeneko mina, gorakoak, behekoak, idorreria, sukar-sindromea, arnasa hartzeko zailtasuna, konbultsioak, erreakzio alergikoak, exantemak, etab.		T
Ume osasuntsuaren programa ezagutzea (jarraipena...).		E
1. maila		
Elikadura- eta jokabide-nahasmenduak antzemateko eta deribatzeke irizpideak ezagutzea.		E

4.3.3. PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK: E3

GINEKOLOGIAKO HELBURUAK (hilabete 1)	
3. maila	
Bigarren mailara kontsultartekoa deribatzeko irizpideak jakitea.	E
Arrisku txikiko haurdunaldian egiten diren jarraipen-jarduerak ezagutzea.	E
Kontrazepzioa: barrerako metodoak, antisorgailu hormonalen eta larrialdietarako antisorgailu	E
Haurdunaldian, erditu ondoren eta edoskitzaroan medikamentuak erabiltzea.	E
Kontsultara joateko arrazoi nagusiei heltzea: bulbobaginitisa, zikloaren alterazioak, gernu-ihesa.	T
Bularren miaketa egitea.	T
2. maila	
Pelbis-zoruaren errehabilitazioa ezagutzea.	E

TRAUMATOLOGIAKO ETA ERREHABILITAZIOKO HELBURUAK (6 aste)	
3. maila	
Historia klinikoa zuzen egitea.	T
Miaketa fisiko egokia egitea (sorbalda/ukondoa/eskumuturra eskua; aldaka/belauna/orkatila; errakia)	T
Erradiologia simple osteoartikularra agintzea eta interpretatzea.	T
Ohiko sindromeak kudeatzea (artrosia, osteoporosia, lunbalgia, sorbalda mindua, epikondilitisa,	T
Beste irudi-proba batzuen indikazioa ezagutzea.	E
Traumatologiara, Errehabilitaziora eta Fisioterapiara deribatzeko irizpideak ezagutzea.	E
2. maila	
Infiltrazio periartikularra egitea (eta isuria drainatzea).	T
Kirurgiaren indikazioa ezagutzea trauma prebalenteen patologian (artrosia eta nahasmendu ortopedikoak).	E
1. maila	
Tratamendu alternatiboak ezagutzea jatorri osteoartikularreko min kronikorako.	E

OFTALMOLOGIAKO HELBURUAK (2 aste)	
Historia kliniko zuzena egitea.	T
Miaketa fisiko egokia egitea.	T
Hipertentsioa, miopia larria, glaukomaren familia-aurrekariak dituzten eta diabetesa duten pazienteen kasuan, ikusmen-zolitasunaren galera prebenitzeko jardueren inguruan adituek ematen dituzten gomendioak ezagutzea.	E
Honako hauek diagnostikoa kudeatzea: Begi gorria, begi negartsua/lehorra, euli hegalaria, begietako mina, ikusmen-zolitasuna gutxitzea.	T
Honako hauen manei diagnostikoa, tratamendua eta deribazio-irizpideak: Aurreko poloaren alterazioak: Konjuntibitisa, pterigioa, pingekula, kornea-urradura, kataratak... Betazaleko alterazioak: bekatxoa, txalaziona, blefaritisa, trikiasia, entropiona eta ektropiona. Glaukoma kronikoa.	T
Larrialdietako patologien hasierako kudeaketa eta deribatzeko irizpideak: kornea-urradura/gorputz arrotza, zoster herpes oftalmikoa, begiko traumatismoa...	T

ERRADIOLOGIAKO HELBURUAK (2 aste)	
2. - 3. mailak	
Lehen Mailako Arretan kudeatzen diren osasun-arazoetarako erabiltzen den oinarriko erradiologia interpretatzen jakitea.	T
Toraxeko, abdomeneko eta hezurretako erradiografia sinpleak interpretatzea.	T

ETXEKO OSPITALIZAZIOAREN HELBURUAK (hilabete 1)	
3. maila	
Asistentzia-modalitate hau, bere funtzionamendua, gaitasuna, pazienteak eta behar bezala tratatu ditzakeen prozesuak ezagutzea.	E
Etxean egoera klinikoak baloratzea, eta ospitale-zerbitzura bideratu gabe kudeatzea: arnas gutxiegitasuna, AFBK larriagotzea edo asma, pleurako isuriaren azterketa, bihotz-gutxiegitasuna, perikarditis akutua, gibelego gutxiegitasuna, aszitisa, entzefalopatia hepatikoa, idorreria, sukar-sindrome akutua, giltzurrun-kolikoa, pielonefritisa, prostatitisa, pneumonia, ultzeren infekzioa, zelulitisa, hepatitis akutua, gastroenteritisa, hiesari elkartutako infekzioak, diabetes mellitusaren deskonpentsazioa eta intsulina-terapiaren hasiera.	T
Zainketa aringarriak etxean aplikatzen jakitea, paziente terminalarekin eta haren senideekin izan behar den komunikazioa eta eman behar zaien laguntza emozionala ezagutzea, eta minaren kontrola eta beste sintoma batzuk kontrolatzen jakitea.	E
Pazienteak behar izan ditzakeen teknikak etxean nola egiten diren behatzea: bena-ziztada, arteria-ziztada, parazentesia, torazentesia, artikulazio-infiltrazioa eta larruazalaren edo larruazalpeko ehunaren biopsia.	E
Erizaintzako sendaketak eta zainketa mota guztiak ezagutzea eta nola egiten diren behatzea.	E

ZAINKETA ARINGARRIETAKO HELBURUAK (hilabete 1)	
3. maila	
Laguntza aringarriko tratamenduaren indikazioak ezagutzea.	E
Zainketa aringarriak behar dituen pazientearen balorazio integrala egitea (ikuspegi biopsikosoziala).	T
Egoera orokorra eta mina baloratzeko eskalak aplikatzea.	T
2. maila	
Tratamendu farmakologikoak kudeatzea (dosia, albo-ondorioen kudeaketa, emateko bideak...), eta arintzeko helburua duten beste teknika terapeutiko batzuk eta horien indikazioak ezagutzea.	T
Sedazio-protokoloa ezagutzea.	E
Zainketa aringarrietan eta fase terminalean, pazientearekin eta familiarekin komunikatzeko gaitasunetan trebatzea.	T
Zainketa aringarrien hartzaile diren pazienteen familia artatzean duen garrantzia ezagutzea. Arreta ematea doluan.	T
Pazientearen eta haren familiaren arazoak beren etxean bertan kudeatzen eta tratatzen ikastea.	T
Bizitzako azken faseko alderdi etikoetan sakontzea.	E

OSASUN MENTALEKO ERROTAZIOAREN HELBURUAK (6 aste)	
3. maila	
Sindrome nagusienak deribatzeneko irizpideak ezagutzea.	E
Tokiko eta komunitateko bitartekoak ezagutzea.	
Osasun mentalari lotutako historia klinikoa behar bezala egitea:	
Depresioa eta antsietatea kudeatzea.	T
2. maila	
Psikofarmakoak kudeatzea.	T
Adikzioei lotutako patologia mentala antzematea.	T
Ohizko adikzioak antzematea eta kudeatzea.	T
Laguntza- eta euste-terapiak egitea.	T
Osasun mentaleko patologiarik lotutako lege-inplikazioak ezagutzea.	E
1. maila	
Terapia ez-farmakologikoak ezagutzea: modalitatea, indikazioa, etab.	E
Sexu-, jokabide-, elikadura- eta bestelako nahasmenduak kudeatzen jakitea.	E
Nerabegaroko arrisku-jokabideak, jokabide-aldaketak eta abar antzematea.	E
Familiako elkarrizketa egitea egoera gatazkatsuetan.	E

DERMATOLOGIARIKO HELBURUAK (hilabete 1)	
3. maila	
Historia klinikoa behar bezala egitea, antzemandakoa hizkera dermatologikoan deskribatuz (oinarrizko lesioak, kokapen topografikoa eta lesioarena, eta pazienteak aipatutako sintomatologia).	T
LMAn ohikoenak diren gaixotasun dermatologikoak baloratzea eta kudeatzea: tumore onberak, mikosia (kandidiasia eta pitiriasi aldakorra), biriasia (herpesa, papiloma-birusa, molluscum contagiosum), parasitosisia (hazterria eta pedikulosisia), intsektuen ziztaden erreakzioak, ekzemak (atopikoa, kontaktu bidezkoa, seborreari dagokiona...), aknea eta errosazea, psoriasis, urtikaria...	T
Minbizi-aurreko eta epitelio-minbiziaren (keratosi aktinikoak, kartzinoma basozelularra eta espinozelularra), nebul melanozitikoaren eta melanomen lesioen diagnostikoa eta bilakaeraren kontrola ezagutzea.	E
Deribazio larri eta ez larrirako irizpideak ezagutzea.	E
2. maila	
Larruazaleko gaixotasunak diagnostikatzeko erabiltzen diren teknika mikrobiologiko eta serologiko arruntenak ezagutzea.	E
Gaixotasun sistemikoen larruazaleko zeinuak ezagutzea: kolagenosia (lupus eritematosoa, esklerodermia eta dermatomiositisa), panikulitisa (eritema koskorduna, eritema induratua) eta baskulitisa.	E
1. maila	
Oinarrizko teknika diagnostiko eta terapeutikoak ezagutzea (biopsia, proba epikutaneoak, bisturi elektrikoa, krioterapia, elektrokoagulazioa, kuretajea...).	E

OTORRINOLARINGOLOGIAKO HELBURUAK (2 aste)	
3. maila	
ORLko historia klinikoa zuzen egitea.	T
Miaketa fisiko egokia egitea: otoskopia, bertigo-maniobrak, aurreko errinoskopia, zeharkako	T
Arazo ohikoenak zuzen kudeatzea: otalgia, otitisa, faringoamigdalitisa, sinusitisa, epistaxia, hipoakusia, akufenoak, aurpegi-paralisi periferikoa...	T
Deribazio-irizpideak ezagutzea.	E
2. maila	
Traumatismo otikoa edo gorputz arrotza (sudur-hobiak, belarriak...) duen pazientea artatzea.	T
Audiometria interpretatzea.	T
Irudi-proben indikazioa ezagutzea.	E
Paziente trakeotomizatuaren zainketak ezagutzea.	E
1. maila	
Errehabilitazio bestibularreko indikazioa ezagutzea.	E

4.3.4. PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK: E4

OSASUN-ZENTROKO HELBURUAK (12 hilabete)	
Norbanakoaren arreta	
Pazientean oinarritzen den metodo eta kudeaketa klinikoa ezagutzea.	T
Gai izatea ikuspegi biopsikosoziala lantzeko, testuinguru familiarra eta soziala kontuan hartuta eta horri helduta, eta etxeko eta komunitateko arreta barnean hartuta.	T
Komorbilitatea kudeatzen trebatzea. Paziente pluripatologikoa.	E
Kronikotasunaren estrategia eta esparru soziosanitarioa ezagutzea.	T
Gaixotasunak prebenitzeko eta osasuna sustatzeko jarduerak egiteko beharra eta aukera baloratzea, bai eta zainketa aringarrien beharra ere, beharrezkoa denean.	T
Medikamentuak zuhurtziaz erabiltzeko trebetasunak eskuratzea: Pazientearen historia farmakoterapeutikoa kudeatzea. Medikamentuen/medikalizazioaren gehiegikeriei buruz hausnartzea. Depreskripzioa.	T
Pazientearen segurtasunaren kultura praktikan sartzea.	T
Partekatutako erabakien alorreko trebetasunak barneratzea, ebidentziak, onura eta arriskuen balantzea bai eta pazientearen balioak eta nahiak ere integratuz.	T
Informazio-sistemako erregistroak behar bezala erabiltzea (Historia, NABG, JT, MAE...).	T

Oinarrizko gaitasunen arloa	
1. maila	
<i>Komunikazio asistentziala</i> Kalitatezko elkarrizketa klinikoa egitea, kontsulta eraginkorra izan dadin, eta erabakiak pazientearekin batera hartzea.	T
<i>Bioetika</i> Ohiko praktikan arazo etikoak antzematen jakitea, tartean dauden balioak kontuan hartzea, eta jardunbide onena proposatzea.	T
<i>Arrazoiketa klinikoa</i> Semiologiak, miaketa fisikoetan egiten diren aurkikuntzek eta proba diagnostikoen erabilgarritasunak (sentsibilitatea, espezifikotasuna, aurreikuspen-balioak, probabilitate-koefizienteak) zer-nolako balioa duten interpretatzea eta horiek integratzen jakitea erabakiak hartzerakoan. Ausazko saiaketa kliniko baten irakurketa kritikoa egitea.	T
<i>Arretaren kudeaketa</i> Kontratu-programa eta LMAko kudeaketa klinikoko kontratua ezagutzea, bai eta kalitate-adierazleak ere.	E
Familiari lotutako gaitasunen arloa	
2. maila	
Tratu txarren egoeretan, jarduera-plan bat proposatzea kontsultan.	T
Komunitateari lotutako gaitasunen arloa	
2. maila	
Eredu biopsikosozialean oinarritutako kudeaketa integraleko plan bat proposatzea, osasun-arazo konplexua eta osagai soziosanitario altua duten pazienteak kudeatzeko estrategia gisa.	T
Prestakuntzari, irakaskuntzari eta ikerketari lotutako gaitasunen arloa	
1. eta 2. mailak	
Kalitatezko saio klinikoak ematea, metodologia egokia baliatuta. Bigarren mailako informazio-iturriak erraztasunez erabiltzea. Esku hartzeko azterketa bat kritikoki baloratzen eta emaitzak interpretatzen jakitea. Ikerlana egitea eta amaitzea.	T T E

LARRIALDIETAKO HELBURUAK

Helburu nagusia

Egoiliarra gaitzea hil edo biziko edozein larrialdi eta patologia urgente arruntak ebazteko, eta bideratu behar direnak hasieratik kudeatzeko.

Helburu espezifikoak

Hauen aurrean jarduten jakitea:

- Geldialdia.
- Shocka.
- Politraumatismoak.
- Koma.

Kasu hauetan, orientatzen eta nola jokatu jakitea:

- Sukar-sindromea.
- Abdomeneko mina.
- Toraxeko mina.
- Zefalea eta zorabioa.
- Disnea.
- Sinkopea eta konbultsioak.
- Intoxikazioak.
- Jokabidearen alterazioak.

Patologia traumatologiko ohikoenak miatzen eta kudeatzen jakitea:

- Kontusioak.
- Bihurrituak.
- Haustura itxiak.
- Lokadurak.

Traumatismoen profilaxia eta higiena ezagutzea.

Hauek egiten jakitea:

- Zaurien sendaketa.
- Abzesuen drainatzea.

Uzkizko patologia kudeatzen jakitea:

- Hemorroideak.
- Fistulak.
- Fisurak.

Patologia urologikoa kudeatzen jakitea:

- Gernu-erretentzioa.
- Zunda iraunkorra daramatenen arazoak.
- Koliko nefritikoa.

Arazo baskular nagusiak kudeatzen jakitea:

- Barizeak eta zain-gutxiegitasuna.
- Patologia arterial periferikoa

Ospitalizazioa behar ez duten patologiak ebazten jakitea.

Proba osagarriak noiz indikatu jakitea.

Larrialdiko pazientearen artatzean, familiarekin izaten den harremanak duen garrantzia ezagutzea.

* Helburu horiek egonaldiko 4 urteetan garatuko dira, gainbegiratzea eta erantzukizun-maila prestakuntza-urtera egokituta.

5. ETENGABEKO ARRETA

E1	5 guardia hilean ospitaleko larrialdi orokorretan (Arlo medikoa eta Traumatologia)	17 eta 24 orduko guardiak
E2	4 guardia hilean ospitaleko larrialdi orokorretan (Arlo medikoa eta Traumatologia) Guardia bat hilean EAGan (bigarren seihilekoa)	17 eta 24 orduko guardiak 7 orduko txanda
E3	4 guardia hilean ospitaleko larrialdi orokorretan, 10 hilabeteen (Arlo medikoa eta Traumatologia) 4 guardia hilean Pediatrian, 2 hilabeteen	17 eta 24 orduko guardiak 17 eta 24 orduko guardiak
E4	3 guardia hilean ospitaleko larrialdi orokorretan Guardia bat hilean EAGan * Guardia bat hilean Emergentsietako Lurralde-unitatean, Pediatrian, Landa-eremuan, Jarduera Komunitarioan, Osasun-zentroan (Teknikoak, Kontsulta programatua...)	17 eta 24 orduko guardiak 7 orduko txanda 12 orduko txanda 7 orduko txandak

* Hautazko guardiak, gehienez ere 5 guardia hilean

6. PRESTAKUNTZA OSAGARRIA

Prestakuntza teoriko eta praktikoa: urteko 250 ordu inguru, 4 urteetan banatuta.

6.1. ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA

Beste profesional eta espezialitate batzuekin batera eginiko prestakuntza sartzen da hemen, eta erreferentziako ospitaleetan edo Irakaskuntza Unitatean egiten da.

Ikastaroak:

BBB (oinarrizkoa eta aurreratua), babes erradiologikoa, EKGren irakurketa-ikastaroak, erradiologia interpretatzeko ikastaroak, genero-indarkeriako tailerra, bioetikako ikastaroak.

Prestakuntza klinikoko ikastaroak, arloka (boluntarioak)

6.2. PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA

Eremu-ikaskuntza osatzeko eta finkatzeko helburua du, eta prestakuntza-urtera egokituta dago. Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntzako Unitatean ematen da.

PRESTAKUNTZA OSAGARRI ESPEZIFIKOA
E1
Osasun komunitarioa I eta II
Morbilitatearen azterketa I eta II
Elkarrizketa klinikoa I
Familia-orientazioa I: Hausnarketa taldea. Teoria sistemikoa.
Bioetika
Ahozko aurkezpenak
Bilaketa bibliografikoa
Genero-indarkeria
Jostura-tailerra
Bendaje funtzionalen tailerra
E2
TFR I eta II Orientazioa
Irakurketa kritikoa
Elkarrizketa klinikoa II: Informazioa eta berri txarrak
Familia-orientazioa II: Función familiar - CVF - AVEs
Desberdintasunak osasunean
Tabakoa eta alkohola
E3
Ikerketa-metodologia. TFR III Orientazioa
Osasun Mentala
Elkarrizketa klinikoa III: Negoziazioa eta paziente zaila
Komunitateko esku-hartzeko proiektua
Aurretiazko borondateak
Medikamentuaren arrazoizko erabilera, preskripzio kuaternarioa, despreskripzioa
Zainketa aringarriak
E4
TFR IV orientazioa
Familia-orientazioa III
Motibatze elkarriketa klinikoa
Komunitate-osasuna Baliabide soziosanitarioak
Komunitate-osasuna: Kasu biopsikosozialak
Genero-indarkeriako kasuen tailerra
Infiltrazioen tailerra
Aire bidezkoaren tailerra

ARABAKO FAMILIAKO ETA KOMUNITATEKO ARRETAKO IRAKASKUNTZA UNITATE MULTIPROFESIONALEKO IKASKETA- AGERTOKI NABARMENAK

Ikerkuntza

Esperientzia-ikaskuntzaren aldeko apustuaren barruan, BAME4/BAEE2 urtearen amaieran aurkeztu den **Egoitzaldiaren Amaierako Ikerlana (EIL)** sartzen da programan. Lan hori irakaskuntza-unitateak sustatzen eta tutorizatzen du gertutik, osasun-zentroko tutoreekin lankidetzan.

EIL horietako batzuk espezialitatearen esparruko aldizkarietan **argitaratu** dira eta **jardunaldietan/kongresuetan** aurkeztu dira (eta horietan parte hartzeko aukera ematen dizuegu), baita sariak eta aintzatespena lortu ere.

Komunitarioa

Jarduera komunitarioa egiteko agertokia oso ona da gure ingurunean. Gaur egun, **ikastetxeen % 100ek** sektorearteko jarduerak dituzte edo beste eragile batzuekin batera parte hartzen dute hiriko osasun-sare lokaletan. Gaitasun-eremu hori garatzen laguntzen dugu, eta horren aldeko apustua egiten dugu, ekimen eta programa horietan parte har dezazuen.

Esperientzia dugu egoiliarrek zuzendutako **programa propioetan** (adibidez, 2023-2024ko Prozesu arinetako hezkuntza komunitatean), eta **etengabeko arretako borondatezko moduluak** egiteko aukera eskaintzen dugu, komunitate-jarduera gisa.

Unitateak harreman egituratua errazten du **Osakidetzaren estrategia komunitarioa** eta **beste eragile komunitario batzuekin koordinatzeko saioak** hedatzen ari diren erizain komunitarioekin (famiako espezialistak). Horrekin batera, prestakuntza espezifikoa ematen du, **proiektu eta esperientzia arrakastatsuetan** oinarrituta.

Osasun-zentroa

Ibilbide/errotazio baten aldeko apustua egiten dugu. Horrek bi alderdi bateratzen ditu: osasun-zentroko egonaldien protagonismoa, batetik, eta familia-mediku gisa prestakuntza hobea lortzera bideratutako errotazioak, bestetik.

Espezialitatearen Programa Ofizialean oinarritutako ibilbide horiek **malguak** dira, eta urtero berrikusten eta egokitzen dira, ingurunearen ezaugarrien eta egoiliarrek eta tutoreek egindako iradokizunen arabera.

Ereduzko prestakuntza-ibilbidea **Lehen Mailako Arretako mediku gisa prestakuntza onena** bermatzera bideratuta dago, eta, aldi berean, **banakako egokitzapenak** egiteko aukera ematen du, egoiliarren profilarren eta beharren arabera.

Irakaskuntza-unitatearen printzipioek eta ingurunearen ezaugarriek ahalbidetzen dute zuen prestakuntza-prozesuaren **jarraipen hurbila egitea**, bai eta osasun-zentroen arteko joan-etorriak, errotazioak/guardiak eta prestakuntza hurbilekoak izatea ere.

